

PRENTSA OHARRA

Bizkaia Zientzia Plazaren 3. edizioa

Bizkaiak plazara aterako du dibulgazio zientifikorik informalena eta zorrotzena

- *Bilbon egingo da irailaren 18tik 25era bitartean UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatzen duen Bizkaia Zientzia Plaza jaialdiaren hirugarren edizioa.*
- *Naukas Bilbao, dibulgazio zientifikoaren arloko estatuko ekitaldi nagusia, jaialdiaren ardatza izango da berriro ere, maila goreneko 100 dibulgatzaile baino gehiago bilduz; horien artean, Antonio Pérez-Martínez haur-onkologoa edo Virginia Arechavala Biocruceseko ikertzailea.*

(Bilbo, 2019ko iraila).- Bizkaia dibulgazio zientifikoaren epizentroa izango da aurten ere, **irailaren 18tik 25era** bitartean antolatuko den [Bizkaia Zientzia Plaza \(BZP\)](#) jaialdiaren **hirugarren edizioari** esker.

Bizkaia Zientzia Plazari atxikitako askotariko jarduera eskaintza zabala bost ekitaldiz osatuta dago: **Naukas Bilbao, Naukas Pro, Naukas Kids, Bidebarrieta Zientifikoa eta Ciencia Show**. 10 minutuko hitzaldiek, antzerki eta musika ikuskizunek, bakarrizketa-lehiaketek, dibulgaziozko bideoek eta hurrei zuzendutako jarduerak eta tailerrek osatzen dute jaialdiaren programa.

Bizkaia Zientzia Plazak ibilbide luzea duten izen handiko zientzialariak ekarriko ditu agertoki gainera, zientziari buruz modu informalean baina zorrotasunez hitz egin dezaten, hitzaldiak umorez eta musikaz apainduz.

Bizkaia Zientzia Plaza 2017an sortu zen [UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren](#) eskutik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babespean, eta Bilboko Udala, Petronor, Metro Bilbao eta EITBren laguntza du. Jaialdiak hasiera-hasieratik izan duen harrera onaren harira, Bizkaian hirugarren edizioa antolatuko da.

Naukas Bilbaoren IX. edizioa

Aurten **bederatzigarren edizioa** beteko duen **Naukas Bilbao, dibulgazio zientifikoaren arloko estatuko ekitaldi nagusia**, jaialdiaren ardatz bihurtuko da berriro ere, dibulgazioa, umorea eta ikuskizuna uztartuz eta 10 minutuko agerraldiak erabiltzen

dituen formatuari esker. Naukasen formula Bilbon sortu zen 2010ean eta estatuko beste hiri batzuetara hedatu da -egun bakarreko formatu laburragoarekin-, hasiera-hasieratik lortu duen arrakasta handiaren seinale. Izan ere, duela hiru urtez geroztik ekitaldiaren egoitza bilakatu den Euskalduna Jauregiko Auditoriuma estatu osotik etorritako milaka ikusle bezala ohi da zientziarekiko jakinminak bultzatuta, Bizkaia dibulgazio zientifikoaren epizentro bihurtuz.

Izen handiko zientzialariak eta dibulgatzaileak

Aurtengo topaketan ere, izen handiko 100 zientzialari eta dibulgatzailetik gora izango dira. Horien artean daude haurren minbiziari buruzko ikerlan garrantzitsuak egiten diharduen **Antonio Pérez-Martínez** Madrilgo La Paz Ospitaleko Haurren Onkologiako burua; **Virginia Arechavala**, Biocrucesen ikertu eta Gaixotasun Neuromuskularren Taldea koordinatzen duen neurologiako doktorea; **Eva Ferreira**, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko katedraduna; eta **Juan Manuel Bermúdez** Ingurumen eta Oinarrizko Kimikako doktorea, hozteko sistemei iraultza ekartzeko gaitasuna izango duten 'perovskiñak' izeneko material solido berriei buruzko ikerketaren emaitzak aurkeztuko dituen.

Horiez gain, **Isabel Moreno** RTVEko "Aquí la tierra" saioko meteorologoaren hitzaldia, Astrobiologia Zentroari atxikitako **Carlos Briones** Kimikako doktorearen ikuskizun zientifiko-artistiko-musikala, eta **La Gata de Schrödinger (Rocío Vidal)** eta **Quantum Fracture (José Luis Crespo)** *youtuber* ezagunen agerraldiak azpimarra daitezke

Naukaseko aurpegiak ezagunenetakoa bihurtu den **Xurxo Mariño** neurozientzialari galiziarak '**Carbón, la brillante historia de una piedra negra**' (Ikatza, harri beltz baten istorio distiratsua) izenburuko antzezlan zientifikoaren estreinaldia ekarriko du **Oswaldo Digón** antzezlearekin batera. Horrekin batera, **EHUorkestrak** larunbat eguerdian Euskaldunan emango duen kontzertua nabarmendu behar da.

ETBn, streaming bidez

Ekitaldira joaterik ez dutenek zuzen-zuzenean ikusi ahal izango dute *streaming* bidez EITBren "Kosmos EITB" kanalean, Kultura Zientifikoko Katedrarekin sinatua duen hitzarmenari esker, izan ere, kanal horren bitartez zabaltzen dira erakundeak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldi gehienak. Hitzaldiak EITBren "Nahieran" plataforman ere ikusgai izango dira.

BZPko jarduera guztietarako **sarbidea doakoa eta librea da, eta programazioa bzp.eus webgunean kontsulta daiteke.**

OHARRA: Ikusi erantsitako agirian dagoen hizlari nagusien zerrenda elkarrizketak kudeatzeko.

Informazio gehiago:

Ane Roteta: ane@guk.es / 690212067

Iñaki Makazaga: imakazaga@guk.es / 638172469